

EKIN ETA JARRAI, EUROPAN ERE



ANDRES URRUTIA

EUSKALTAZAINBURUA

1. AURKEZPENA

2014. urteko otsailaren 21ean, Bilbon, aukera aparta eskaini zuten Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak, jardunaldi baten bidez, gogoe-ta egiteko, Europako hizkuntzei buruz, hain zuzen ere, arriskuan eta egoera ahulean dauden hizkuntza horien inguruan.

Mintegi gisa antolatu zen ekimena eta bertan izan ziren azpimarratzeko moduko oinarriak:

1. Ekimen horrek berretsi zuen Euskaltzaindiaren “jagon” lana, alegia, Euskaltzaindiaren kezka, euskara bera ikertzeko eta baita jagoteko ere, Jagon Sailean, bete-betean, sartzan baita orduko ekitaldia.
2. Ekimen horrek are zabalago jarri zuen Europako bidea, sarri askotan euskaldunok urrun ikusten dugun hori gure egunerokotasunean sartuta dagoelako.
3. Ekimen horrek jendaurrean jarri zuen Akademiaren eta Fundazioaren asmoa, argi erakutsiz elkarkidetzaren emaitzak aberatsak eta aintzat hartzekoak direla euskalgintzaren eremuan.

Gogoeta esanguratsuak egin ziren 2013ko irailaren 11n, Europako Parlamentuak gehiengo handiz onetsi zuenenean *Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzez eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko Ebazpena* (2013/2007(INI)). Gogoratu dezagun, bestalde, ebazpen horren oinarria izan zela halako txostena, Europako Parlamentuko Kultura eta Hezkuntza Batzordeak aho batez onetsi zuena, 2013ko ekainaren 18an. Horren protagonistak izan dira Alfonsí diputatuarekin batera, Izaskun Bilbao eta Iñaki Irazabalbeitia euskal diputatuak.

Hori da, izan ere, gerogarreneko ekimenak aurrera eramateko katebegia. Orain, hala ere, ko-

meni da gure gizartearen eragileekin batera jokatu eta esparru hori zabaltzea.

Ekin eta jarrai izan zen akademia sortu zutenen leloa. *Ekin eta jarrai* da, orain ere, Akademiaren helburua. Eta ekimen eta jarraitutasun horretan, esparru berriak, Europarenak, hain justu ere, datozkigu aldiotan, gurea ere unibertsala dela gogoratuz.

2. 2013KO IRAILAREN 11N, EUROPAKO PARLAMENTUAK GEHIENGO HANDIZ ONETSI ZUEN DESAGERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN HIZKUNTZEZ ETA EUROPAR BATASUNEO HIZKUNTZA-ANIZTASUNARI BURUZKO EBAZPENA

2.1. AURREKARIAK

Europako zuzenbidea abiada bizian dago eta Europatik dator goiburua. *Unum in pluribus*, alegia, *aniztasunean bat*. Kontua da aniztasun horretan euskaldunok badaukagula zeresana eta zeregina, besteak beste, gure nortasuna aldezteko eta berri eusteko.

Nortasun puntu horretan ezinbestekoa da adieraztea hizkuntza eta kultura direla alde esanguratsuak eta nabarmenak eta nazioarteko mailan

Ekin eta jarrai izan zen akademia sortu zutenen leloa. Ekin eta jarrai da, orain ere, Akademiaren helburua. Eta ekimen eta jarraitutasun horretan, esparru berriak, Europarenak, hain justu ere, datozkigu aldiotan, gurea ere unibertsala dela gogoratuz



ere erakutsi beharrekoak, horietan mamitzen baitira, nagusiki behintzat, herri baten ezaugarriak.

Europar Batasunak pausoak eman ditu urte luzeetan egoera horri erantzuna eman nahian. Lanak eta testuak modu eta tankera desberdinetakoak izan dira¹ eta Euskaltzaindiak ere, Sustapen batzordearen bidez, jakin du horiek euskaratzen eta gizarteratzen².

Beharbada, azpimarratzeko moduan egon daiteke *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna*³ eta horrek euskararen esparruan izan duen ibilbidea Euskal Herrian bertan, Frantzia eta Espainiaren arteko mugaren bi aldeetan harrera desberdina izan baitu testu horrek.

Hizkuntza eta kultura dira alde esanguratsuak eta nabarmenak eta nazioarteko mailan ere erakutsi beharrekoak, horietan mamitzen baitira, nagusiki behintzat, herri baten ezaugarriak

Espainian, jakina, ofizialtasun egoera batekin egin du topo Europako testu horrek, ofizialtasun hori zenbat kasutan (Nafarroan) mugatua bada ere. Frantzian, aldiz, kontua oso bestelakoa izan da, orain berretsi gabe baitago testua, eta euskararen ofizialtasuna agiantzen esparruan kokaturik.

Batera zein bestera, testu horrek ekarri du hizkuntza minorizatueta osterantzeko ikuskera eta ikuspegia, hizkuntza horien inguruko engaiamentu zehatzen programa eta zerrenda ekarri baitu arlo desberdinetan, besteak beste, irakaskuntzan,

justizia, administrazioko agintariak eta zerbitzu publikoak, komunikabideak, kultur jarduerak eta ekipamenduak, ekonomia- eta gizarte-bizitza eta mugaz haraindiko trukeak alorretan.

Badator, etorri ere, bestelako ikuskera, ez horrenbeste ordura arte ohiko izan den gutxiengoaren inguruko gogoeta eta araubidea, ezpada kontzeptu zehatzen inguruko definizioak, gutun horrek ematen dituenak.

Hainbatez, ildo beretik dator Ebazpenaren aurretiko Informe edo Txosten delako hori, berak zehatzen eta gauzatze bidean jartzen dituelako halako neurriak, gomendatzen dituenak, estatuek euren barnean aplikatu ditzaten hizkuntza minorizatuena aitzinamendua erdiesteko asmotan. Ez da horratio alferrik aipatzen testuaren sarreran azken urteetan eskubide linguistikoen esparruan zabaldu eta hedatu diren testuak, ebazpenaren testuan ikus daitekeenez.

2.2. EDUKIA

Europako Legebiltzarrak ohiko duen teknika legegilearen bideari jarraituz esan daiteke hiru zati nagusi dituela ebazpenak:

- 1) Atarikoak, *Vistos (Ikusirik)* gaztelaniazko enuntziatiboaren barnean datozenak. Bertan egiten da halako erakustaldi zabalak, orain arte Europar eta mundu mailan izan diren hizkuntza minorizatuena inguruko legeria eta araubideak bilduz eta batuz, hasi Europar Batasunaren Itunetik eta amaitu alde aurreko ebazpenetan, hedadura zabaleko testuak ere bazter utzi gabe (hala nola *Hizkuntza eskubideen adierazpena*).
- 2) Oinarri juridikoen atala, *Considerando (Kontuan harturik)* esamoldearen barnean azaltzen direnak, hortxe baitira Europar Batasunaren euskarri juridikoak, dela printzipio mailan (Europako ondare linguistiko eta kulturala babestu beharra) dela eskubide zehatzen parametroetan (europar herritarren eskubide linguistikoak), dela hizkuntzen arteko desberdintasuna eta herritarren arteko diskriminazio eza, dela, bestalde ere, Europako garatze

bide iraunkorra eta demokratikoa. Alor honetan, gainera, bestelako argumetuak ere xehe-xehe jarri dira, batik bat, desagertzeko arriskuan diren hizkuntza minorizatuaren aldetik.

- Horra alderatzen da, adibidez, hizkuntza ofizialen egoera, estatu batean estatus egokia izan dezakeena eta beste estatu batean desagertzeko arriskuan. Aipagarria, nolana ere, egoera hori, euskararentzat duen aplikagarritasunaren aldetik.
 - Ondorio gisa jasotzen da irakaskuntzaren garrantzia, besteak beste, horren bidez lortu baitaiteke belaunaldien arteko transmisioa, hizkuntza horien iraupena eta biziberritzea bermatuz.
- 3) Eskabideen edukia, alegia, aurrekoak kontuan hartu eta neurri zehatzak hartzea proposatzen du horrek, neurri zehatz horiek, ez bairik gabe, aurreko printzipio horiek gorpuzteko bidean egiten dira eta eragingarri izan nahi dute, hitz nagusietatik egunerokotasunera doan bidean galdu eta ostendu ez daitezten.

Hitz bitan esateko, halako programa edo egitasmo osoa, Europako Parlamentuak Europako erakundeei, gobernukideei eta herritarrei zuzendu diena, gerogarreneko neurriak ekar ditzakeena hainbat esparrutan. Horiek dira, izan ere, hurrengo urteetarako ibilbidearen ardatza nagusiak, horietan mamitzen baitira etorkizuneko lorratzak, Ebazpen honen kariatara, jarraian zerrendatuko denez.

2.3. GERORAKO IBILBIDEAK

Esparruak esparru, hona ebazpenean bistarago daudenak, Europako hizkuntza minorizatuaren mesedetarako eta Europako Parlamentuaren deia:

a) Babes juridikoa:

3. Dei egiten die oraindik egin ez duten estatu kideei Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna berretsi eta indarrean jar dezaten; Gutuna, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen babeserako erreferentziazkoa dela adierazten du eta Kopenhageko irizpideetan zehaztutako gutxiengoen babeserako tresnetariko bat da, Europar Batasunera sartzeko estatuek bete beharrekoa;

28. Eskatzen die estatu kideei, baldin eta oraindik egin ez badute, izenpetu eta berretsi ditzatela Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna eta 1995eko Nazio-gutxiengoen babeserako Esparru-hitzarmena;

b) Babes politikoa:

8. Eskatzen dio Europako Batzordeari desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babesteko neurri politiko zehatzak proposatu ditzala; eskatzen die, halaber, Europako Batzordeari eta Kontseiluari Tratatuak aitortzen dizkien eskumenen esparruan, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak eta hizkuntza-aniztasuna babesteko Europar Batasunaren politikak finkatu eta egitarauak planifikatu ditzatela, 2014-2020 epealdirako Batasunaren laguntza finantziariorako tresnak erabiliz, bereziki hizkuntza horiek dokumentatzeko programak eta baita hezkuntza- eta prestakuntza-programak, gizarteratze-programak, gazteria eta kirol arlokoak, ikerketa eta garapena, kultura eta komunikabideen programa, egitura-funtsak (Kohesio-funtsak, FEDER, Europako Gizarte-funtsa, Europako lurralde-lankidetzak, eta FEADER) eta teknologia berriak, gizarte-komunikabideak eta plataforma multimedialak sustatzeko sortutako tresna eta plataforma guztiak, edukien eta aplikazioen sorkuntzarako laguntzak barne; uste du tresna hauek gizatalde eta eskualde horiez haratagoko ekintza eta egitarau zabalagoetan, kulturaren zein ekonomiaren arloan, erabili behar direla; eskatzen dio Europako Batzordeari abiarazi dezala hausnarketa bat desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzekin lotutako proiektuek aurkitzen dituzten oztopo administratibo eta burokratikoai buruz, eragindako hitzun-komunitateen txikiaren ondorioz;

Ondorio gisa jasotzen da irakaskuntzaren garrantzia, besteak beste, horren bidez lortu baitaiteke belaunaldien arteko transmisioa, hizkuntza horien iraupena eta biziberritzea bermatuz



Sari-sari uste izan dugu gurea konponduta dagoela, batez ere eskualde euskaldunetan bizi garenon aldetik. Ahantzi egiten dugu, aldiz, euskara urri eta motz dabilela hainbat lurraldetan eta ebazpen honek proposaturiko neurriak eta egindako gomendioak nahitaezkoak direla euskararen lurraldeetan, batik bat, Nafarroan eta Iparraldean

30. Eskatzen dio Batzordeari lagundu ditzala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak sustatzen lagunduko duten proiektu pilotuak eta hiztun-komunitateek eurek landutako ekintza-planak;

32. Eskatzen dio Batzordeari gogoeta egin dezala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babestu, zaindu eta suspertzeko Europa mailako neurri berezituak hartzeko aukeraz;

c) Babes ekonomikoa eta finantzabideak:

9. Eskatzen du, atzerapenik egin ezin daitekeenez, babes-ekintzetarako finantziazioa erraz eskuratzekoa izan dadila eta ahalik eta argiena, erabili nahi luketen eragileek epe jakinean eskuragarri izan dezaten arriskuan dauden hizkuntzei modu eraginkorren laguntzeko;

d) Irakaskuntza:

15. Eskatzen die estatu kideei arreta gehiago jarri diezaiotela eta gehiago lagundu diezaiotela desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzei buruzko goi-mailako irakaskuntzari eta ikerketari;

e) Teknologia berriak:

16. Uste du teknologia berriak baliagarri gertatu daitezkeela desagertzeko arriskuan dauden Europako hizkuntzen ezagupena, zabalkundea, irakaskuntza eta biziraupena bultzatzeko;

- Digitalizazioa:

23. Uste du digitalizazioa hizkuntzen desagerpena saihesteko modu bat izan daitezkeela;

eskatzen die, beraz, tokiko agintariei hizkuntza horietako liburuak eta grabazioak eta baita hizkuntza-ondarearen beste adierazpideak bildu ditzatela eta linean jarri ditzatela herritarren eskura;

- Webguneak:

36. Ohartarazten du badirela webgune baliagarriak desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak sustatzeko proiektuetarako finantziarioa eskaintzen duten Europar Batasunaren egitarauari buruzko informazioa zabaltzeko, eta eskatzen dio Batzordeari deialdi berri bat zabaltzea webgune horiek 2014-2020 epealdirako egitarauarekin eguneratzeko eta informazioa areagotu dezala, bereziki, dagokien hiztun-komunitateei bideratuta;

- Familia:

17. Azpimarratzen du desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak familiaren baitan belaunaldi artean geroratzeko duen garrantzia eta baita hizkuntza horien irakaskuntza sustatzearena ere, beharrezko balitz hezkuntza-sistema berezi baten baitan; horregatik, bultzatzen ditu estatu kideak eta eskualde-egintariak hezkuntza-politikak eta irakasmaterialak garatu ditzaten;

g) Erabilera publikoa:

18. Uste du garrantzitsua dela hizkuntzak indarberritzeko baztertuta geratu diren hizkuntzak eta gehien bat familia girora mugatuta daudenak gizartean jendaurrean erabili ahal izatea;

h) Komunikabideak:

21. Irizten dio hedabideek, berriek bereziki, zeregin garrantzitsua bete dezaketekala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babesteko orduan, etorkizuneko belaunaldiekiko bereziki; berresten du, gainera, teknologia berriak ere erabili zitezkeela helburu horiek lortzeko;

i) Hirugarren herrialdeekiko harremanak:

19. Eskatzen dio Batzordeari lan egin dezala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babesteko eta sustatzeko egitarau eta ekimenak sortu dituzten nazioarteko erakundekin, hala nola Unesco eta Europako Kontseilua;

31. Uste du Batasunak hizkuntza-aniztasuna bultzatu behar duela hirugarren herrialdeekiko harremanetan eta, bereziki, Europar Batasunean sartu nahi dutenekikoetan.

3. AKABANTZA

Lerro hauetan nabari denez, euskaldunok ere badugu zeresana eta zeregina halako aferetan eta, egia esan, euskal gizartean bete-betean kokatzen dira halako kontuak. Euskararen ofizialtasun murriztua gorabehera, sarri-sarri uste izan dugu gurea konponduta dagoela, batez ere eskualde euskaldunetan bizi garenon aldetik. Ahantzi egiten dugu, aldiz, euskara urri eta motz dabilela hainbat lurraldetan eta ebazpen honek proposaturiko neurriak eta egindako gomendioak gaindituzat baino, pil-pileko eta nahitaezkoak direla euskararen lurraldeetan, batik bat, Nafarroan eta Iparraldean.

Bizirik dago euskara bai... baina zenbait lurraldetan. Beste batzuetan eskas dabil eta bizi iraupenaren premian eta bizi berritzearen egarriz, egungo gizarteak behar dituen komunikazio premiei erantzun egokia eman nahi zaie bederen.

Horrexegatik da aldegarri eta onuragarri ebazpen berri hau. Ez, soil-soilean, *wishful thinkings* edo agiantzen erresumen bizitzeko eta *beste bat gehiago* izateko, ezpada eragingarria izateko, hau da, beste pauso bat izateko, euskararen eta oro

har, antzeko egoeran dauden Europako hizkuntzen aurrerabidea izateko. Tresnak behar dira horretarako, hona tresna berria, Europako Parlamentuaren Ebazpena eta era-erara, Euskaltzaindiaren zereginetan sartzen dena, gurea ez baita bakarrik euskararen normatibizazioa, normalizazioan ere (*Jagon*) lan egiten dugulako hasieratik bertatik. Horrexegatik da eskertzeko modukoa Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren ekimena, euskal gizartean zabaltzeko eta barreiatzeko tresna berri hau.

Erabil eta garatu dezagun!

NOTAK

1. MEDGYESY, E.. (Ed.): *Vade-Mecum. Textes officiels internationaux concernant les langues moins répandues en Europe*. Bruxelles: Bureau européen pour es langues moins répandues BELMR/EBLUL, 2003.
2. JAGON SAILA, EUSKALTZAINDIA: *Hizkuntza zuzenbidea*. Testu-bilduma euskaraz. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007.
3. JAGON SAILA, EUSKALTZAINDIA: *Hizkuntza zuzenbidea*. Testu-bilduma euskaraz. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007, 91-107 or.

EKIN ETA JARRAI, TAMBIÉN EN EUROPA

La reciente aprobación (2013) por parte de la Comisión de Cultura y Educación del Parlamento Europeo del Informe sobre las lenguas europeas amenazadas de desaparición y la diversidad lingüística en la Unión Europea es un paso más en la evolución de un auténtico espacio europeo en materia de Derechos lingüísticos. Siguiendo la estela de otros textos anteriores, el Parlamento Europeo ha decidido esta vez proclamar una serie

de ideas que van desde la protección jurídica y política de las lenguas europeas amenazadas de desaparición y de la diversidad lingüística hasta la petición de medios económicos y de financiación que posibiliten, además de los ámbitos tradicionales de normalización de estas lenguas, la utilización de las nuevas tecnologías a través de mecanismos como la digitalización o las páginas web que garanticen un futuro europeo a estas lenguas.



